

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Alor honetan bereizketa bat egin beharko genuke. Alde batetik, azalduko dugu nolaerakarriko ditugun bezero berriak eta bestaldetik, nola mantenduko ditugun.

Komunikazio kanaletan aipatu dugunez, interneta eta telefonoa erabiliko dugu bezeroen guraso edo tutoreekin harremanetan jartzeko eta informazioa emateko. Bertatik zalantzak galdetu ahal dizkigute eta chataren bidez kontsultak bidali.

Dena den, bezero batzuk inguruneak izango direnez ez dute arazorik izango guregana etortzeko eta zuzenean azalduko genieke gure enpresak zer eskaintzen duen eta zein den gure funtzionatzeko modua.

Bestalde, esan beharrik ez dago guk pertsonekin lan egiten dugula eta gure helburua da gure zerbitzuak jaso eta gero ase eta pozik geratzea.

Argi dago gure enpresak bezeroarekin izango duen harreman mota pertsonala izango dela. 12-17 bitartekoak izango dira gure bezeroak eta adin tarte horretan, oraindik adin-txikikoak izanda, gainbegiratuta egon behar dute baina harremana hurbila izango da eta beti ere segurtasun eta konfidantzaren gainean sortua.

Aldi berean, askatasunaren printzipioan oinarritzen gara non, bakoitzak erabakitzen duen zein ekintzatan parte hartu nahi duen. Gure jarduerak, dibertsio askorekin, giro osasungarriaz gozatuz eta gauza berriak ikasiz praktikatzeko dira. Hau guztia, heziketa-balioak sustatuz.

